

Akordioa mamitu

TXILLARDEGI



JOAN den 7an Leioan izan ginen despedituen lagun batzu. Aurtengo ikastaroa ere, despeditutako irakasleen arazoa oraindik gainean dugularik hasi baita.

Hizkuntza-frogarako deialdi bikoitza zegoen. Azterketa-gela izkutuka aldatu dute, eta modu bitxi horretara burutu dira frogak, artean bonba-mehatuak errepikatuta eta batimendua oro hustutzen zirelarik.

Labur esanda: berriro ere irakaskes despedituen arazo azkengabeak markatu du kurtsio-zabalketa. Bi irakaskes bestalde beste gosse-greba bati ekin diote. Eta ezberk ez du iradokitzen ikastaro baketsu eta normalik izango dugunik.

Bidezkoa al da berriro ere arazo hau zornatzea? Ez dugu inolaz ere uste. *Jadanik aurrerengi* joana dela esango genuke, hain zuzen.

Koldo Gorostiaga irakasleak datorren hilean beteko ditu Unibertsitate-irakaskuntzan igaro dituen bere 30 urteak. Joseerra Etxebarria irakasleak, zenbait urte gutxiagorekin (adin kontu hutsa), errespetu gaitza bildua du bere pertsonaren inguruan. Gainerako zoritxar-kideek ere merezimendu-altxor gaitza bildu dute Euskal Unibertsitatearen alorrean.

Zalantzarik ez dago: irakaskes hauek gaitzea tamalgaria litzateke arunt. Behin eta berriz esana dugu askok.

Areago euskal munduaren kinka hits honetan: ikastolaren birrinketa, erdaldun irakasleen hedakuntza hazkorra, Euskal Teletibistan nagusitu den hyper-diglosia lotsagarria, EGUNKARIAREN kontrako eraso sinets-ezina, eta abar luze bat.

Gauzak horretan daudelarik (eta horretan daude, zoritxarrez), irakaskes despeditua gaitzea ezin-onartuta da.

Nekez bada ere, eta denen gustora izan ez arren (eta gauza nabarmena da Euskal unibertsitate batek besterik egin behar zuela aspaldidanik gure lankide mirengari horien alde), akordio bat badago, bederatzik elkarriketa lantsutan mamitua.

Gehienok nahi genuke bihotzaren erditik horren nekez lortu zen akordio hiri orain, luzatu gabe, azterketa-probakaziorik gabe, mamitza.

Eta Euskal Herriak, ere Euskal Unibertsitateak berak ere, dituen arazo larririk eta premiatsuak denen laguntzaz bideratzen hastea.

Akordio bat badago. Gauza bedi, otoi.

Bali ahala bali...

GEXAN LANTZIRI



BOTEREAN daudenak bali ahala bali ari direla ohartzeko, egunean eguneko berriak jarraitzea aski da. Eta adibideak ugari dira. Ondorioz, erexki ulertzen da, politikero horiek zergatik nahi duten, jendeak ez dezan beraien afezterian sudurra gehiegi sar.

Hala nola, frantses Segurantzaren Sozialaren Kutxa beti zilo delakoan, langileriarik eta beraz gehienbat jende xumeari jasan-arazten diote egoera horren ondorioa: Kotisazioen goratzea eta erretretarako epea hiru urtez luzatzea! Bitartean, lantegi haundi eta Estaduko erakunde batzuk kotisazioak oraindun gabe ibiliko dira... Eta aipatu dugun Kutxa horietako goi-arduradunak xahupide haundietan lasai ariko dira, bidaia ederrak, aldzikari garestienak edo bitzar-ikastaldi berezienak Kutxaren bizkar eginez!

Deputatu ala Senaturrek, eta Departamenduko edo Eskualdeetako Kontseilariek ere funtsean, jokabide hori aspalditik praktikatzen dutela, gauza jakina da.

Frantses gobernuak aurtengo zergak 17 miliarrez apaldiko dituela erran badu, Eskualdeetakoak 22 miliarrez goratuko direla eraita aiantzi du. Eta ere, espektulazailerei bidea hiru urteko diela, nahiz eta aste batez hiru ehun miliar xahutu dituen Diru Publikotik!...

Segurantzaren Sozialeko diru bihurpenak % 5ez apaltzea erabaki dute, salbuespen bat onartzaz halere behartuenerantz: Deputatu eta Senatur gaixoenantz!

EL CORREO ESPAÑOL

Estrategia egokia

Fenomeno terroristak, beraz, alderdi berriak azaltzen ditu eta horiek Madril eta Ajuria Eneko akordio demokratikoetan erabakitako estrategiaren aplikazio zentzuzko eta malgua egitea eskatzen dute. Zentzuz jokatzea, gaur eta hemen, baketze estrategiak poliziala eta politikoa egokiro bateratzen dituela —hots, terrorismoa ekonomikoan, operatiboan, nazioartekoan... desegitea— esan nahi du, aldi berean proiektu politiko jakin bati sistema demokratikoan egokitzeko aukera ematen jarraitzen dugularik.

Era berean, HBko buruzagiak jazaritzea esan nahi du, hala nola horiek kriminalizatzea ETA edo biolentziaren alde operatiboa edo apologetikoa den zerbait esaten edo egiten duten bakoitzan eta, aldi berean, HB eta bere inguruan biolentziaren amaiera eta beren postulatuen defentsa demokratizariaren baitan defenditzen eta aholkatzen dituztenen gogoeta erraztea eta bultzatzea ere esan nahi du. Esan nahi du, orobat, biolentziaren txantain oinarritzen den negoziazio politikoa-

HEMEROTEKA



Utzi aholku autonomiko bat ematen: diruarena hasieratik argitu. Gero inork ez du ezer jakin nahi eta. GALLEGO & REY / DIARIO 16

ren aurrean erabateko intransigentzi mezuza erabiltzearekin batera beroriei adieraztea irtenbide elkarriketatua, eta ez politikoa, errazteko prest gaudela baldin eta hiltzeari uzten badiot.

RAMON JAUREGI

EL MUNDO

Ekialde Erdiko «Harresia» erortzeaz dago

Mugarria da Ekialde Herriko historiari eta adituek horren

garrantzia 1948. urtean hebrear Estatuaren sorreraren parean jarri dute. Atzean gelditu da bide luze eta gora-beheratsua. Horren hasiera 70eko hamarkadaren azken urteetan jarri beharko litzateke, Camp Davideko akordioak sinatu zirenean. «Intifada» barik, 1987. urteko aurrera, Israel nekez sentituko zen behartuta Lurralde Okupatuak itzultzea. SESBen eta komunismoaren erorketak ariabarrak hebrear Estatuaren bidez makurtarazi ahal izateko beharrezkoa zuten laguntzarik gabe utzi zituen. Eta Bushek Iraken aurka lortutako garaipenak eta Kuwaiteko gerran palestinarrek Sadami emandako

laguntzak PAE nabarmen ahuldu zuten. Baina etsai amorratuaren arteko lehenengo hurbilketa garrantzitsua 1991ko urriari Madrilin hasiatako prozesuarekin batera gertatu zen, palestinarrek olibondo ardar bat zeramatela azaldu eta berrioren arteko harremanak debekatzen zituena tabua puska-puska eginda gelditu zenean.

EDITORIALA

egin

Ausar daitezela

Atera duten hotsa gora-behera, Juan Alberto Belloch Justizia ministro berriaren adierazpenak partitura zaharrenean gaineko letra aldaketa hutsa besterik ez dira eta, beraz, guztiak lehenengo hots bera ateratzen du. Beti ere polita da ministro bati presoei «askatze izatera ausar daitezela» esaten entzutea, baina hitz hauetarik haratago errealitatea bustetako da, hain zuzen preso daudela beren askatasun ideiarik ezela borrokatzen ausartu zirelako. Gainera, ezkutatu egiten dute inork eman nahi ez duen irtenbide erraza. Utz diezaietela hitz egiten auzartzen badira.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Autokritika

Badirudi euskaldunok ez dugula erremediorik. Gure gatazkak ez duela itzeerarik. Eta honela izanen dela esango nuke nik ere, denok autokritika sakon bat eginik hasten ez garen bitartez, eta ez dago ukatzerik egoera honetan denok dugula eruarien zati bat gure gain. Noski, zenbait eta ardua gehien ukan gizarre honen gidaritzan, hainbat eta larragoa izanen da gure erresponsabilitatea. Honela, ez dago onartzerik goi mailako zenbait politikok, arazoari konponbidea bilatu beharrean, batzuek besteei akatsa botatzea, erreboteratu gisa. Horretatik bizi direnak, eta ongi bizi gainera, beraiek dute konponbidearen ardura nagusia, eta ez da bidezko hitz potolo batzuk noizbehinka boteaz konformatzerik. Eta badirudi une honetan logika modaz kanpo dagoela, bestela nola liteke batetik indarkeria gaitzestea eta bestetik konponbidea neu-

rri polizialean aldarrikatzea. Nolanen pentsa genezake egoera normaltzea Iglesias eta beste mila euskaldun preso dagoen bitartean? Nolanen hondatu dugu «Boby» inglesen irudia behar zuten ertzainen irudia? Orain, Camarero gazteari errua bota eta bale?

Jaunak, izan dezagun zentzu apur bat eta kontura gaitzen guztion egin beharra bilakatu zaigula konponbidearen urratsen lehen pausoak ematea. Oinak lurrean ipiniz eta borondate onaren gain, ahalegin baiko-rrerri helduz. Eta hauen artean, eredutuz joko nuke Elkarrirena. Inoiz baino beharrezkoagoa une honetan.

J.J.I.

Zaldibia (Gipuzkoa)

Ertzaintzaren alde

Aurrekoan (93-9-7) EUSKALDUNON

IMANOL UNZURRUNZAGA

Biibo

GAIA JARRITA

Israel-Palestina



O! Palestina 'Sei Egun' haiek luzatu dira gehiegi. Burujabetza eskubidea herri orok du zilegi; negoziaketaz konpon ziteken zertan hainbeste komeri? zer dela eta hainbeste odol, heriotza eta eri? Lehen urratsa emana dago bidea egiten segi, paperetako akordioa kalean gauzatu bedi!

IÑAKI MURUA

Egunkaria

Bartzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800990



ODI: IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: IÑAKI URUA

Gerentia: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS

Capitan Hays 1.2.a 28030 Madril / # 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANITZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / # 37 15 45 / Fax: 36 54 93

Egiltza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Anso Jakituna, 16-1, 20010 Donostia / # 46 90 22 / Fax: 45 59 57

Nafarroa: San Antonio, 20-1 etzer. / 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastergia, 45-13 esk. / (Iritzi dorrea) / 31011 Iruñea / # 17 80 7879 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1 ezkerrean. / 48003 Bilbo / # 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecou 14. / 503 Posta kuxantila, / 64100 Baiona / # 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11